



# ikuspegi

**Immigrazioaren Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco de **Inmigración**



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA  
*Immigrazio Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES  
*Dirección de Inmigración*

# Ikuspegi Barometroa


Atzerriko immigrazioaren inguruko jarrerak eta pertzepzioak. 2010eko ekaina

## Fitxa teknikoa

- Egindako inkestak: 1.200 (NC = 95 % ,sigma = 1,96, eta Akatsa = +/- 2,82%)
- Inkestak lurraldeka: Araba 400 (+/-4,9%), Gipuzkoa 400 (+/-4,9%) eta Bizkaia 400 (+/-4,9%)
- Etxez etxeko inkesta pertsonala 18 urtetik gorako pertsoneri
- Laginketa geruzatua habitat-tamainaren, adinaren eta sexuaren arabera kuotekin
- Etxeen aukeraketa: ausazko bideen sistema
- 61 laginketa-puntu 29 udalerritan banatuta (6 Araban, 11 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian)
- Laginaren haztapena (eragile zuzentzaileak) lurraldeka, habitat-neurri, adin eta sexuaren arabera, EAEko datuak azaltzean.


# 1. Arazoaren pertzepzioa

## Zure ustez, gaur egun, zein dira Euskadin ditugun 3 arazo nagusiak? (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Euskadiko herritarrek ez dute immigrazioa arazo moduan bizi. % 2,8k baino ez du aipatzen modu espontaneoan Euskadiko arazo nagusi gisa. Aipatu diren erantzun guztien % 15,4 da immigrazioa.
- Hiru erantzun espontaneoan multzoan Euskadiko herritarren % 15,4k baino ez du aipatzen arazo gisa, eta hori baino askoz aurrerago daude langabezia (% 82,4), izaera ekonomikoko arazoak (%34,6), etxebizitza (%21,0) eta ETA (%20,9).
- Agerikoa denez, krisi ekonomikoak aipatutako gainerako arazo guztiak desitxuratzen ditu.
- Immigrazioa arazotzat hartzeari dagokionez, datua 2008 (% 7,2) eta 2009koaren gainetik dago (% 12,9) eta 2007koa (15%) baino lau hamarren gehiago ditu.


Txartel honetan ageri diren arazoetatik, zure ustez, zein dira Euskadiko hiru arazo nagusiak?\*



- Arazo-zerrenda bat eman eta bertatik hiru aukeratzeko eskatzen zaienean, immigrazioak gora egiten du % 20,2ra arte eta bere garrantzi erlatiboa areagotu egiten da, iaz baino 6 puntu gehiago.
- % 6ak aipatzen du lehenengo aukeratzat, bat-bateko erantzunetan ematen den datuaren bikoitza.
- Langabezia hain arazo larritzat hartzeak txikitu egiten du aurreko urteetan etxebizitzari edo arazo ekonomikoei ematen zitzaaien garrantzia ere.


\*Aurten eman dugun gaien zerrenda ez da aurreko urteetako. Europako datuekin konparatzeko EUROSTATEk eskaintzen duen gaien zerrenda erabiltzea erabaki dugu.

## Gaia aldatuko dugu. Pertsonalki zein hiru arazok ukitzen zaituzte gehien? (Gehienez ere 3 erantzun: bat-bateko erantzuna)



- Immigrazioa arazotzat hartzearen zifrak behera egiten dute arazo pertsonala den galdetzen denean, aurreko urtean baino % 1,8 gehiago.
- Modu espontaneoan, immigrazioa Euskadiko herritarren % 1,2rentzat baino ez da lehenengo arazoa.
- Hiru erantzunetako aipamen guztiak kontuan izanda, Euskadiko herritarren % 8,2k beretzat immigrazioa arazo pertsonala dela dio.
- Maila pertsonalean aipamen gehien jasotzen dituzten arazoak langabezia (% 47,3) eta izaera ekonomikoko gorabeherekin lotutakoak (% 39,5) dira.

### Konparazioa aurreko barometroekin: zeintzuk dira Euskadiko hiru arazorik garrantzitsuenak? (Gehienez hiru erantzun: erantzun espontaneoa)




- 2010eko barometroa aurrekoekin alderatzen dugunean, etxebizitza eta ETA arazotzat hartzea gutxitzen da eta langabeziarengatik arduraren areagotzen da.
- Immigrazioa arazotzat hartzearen zifrak erlatiboki parekoak dira 2007koekin alderatuta, baina igo egin dira 2008 eta 2009ko datuekiko.
- Hala ere, 2008tik igo da immigrazioa arazo pertsonal moduan, % 4,9tik % 8,2ra.

## 2. Elkarbizitza




**Zure ustez, EAEn, bertako eta atzerriko biztanleen arteko harremanek hobera egin dute azken urtean, okerrera egin dute, ala berdin daude?**



- Oro har, EAeko biztanleek uste dute atzerritarrekiko harremanetan ez dela aldaketarik izan (% 57).
- Hala ere, gehiago dira harremanek okerrera egin dutela adierazi dutenak (% 26), hobera egin dutela diotenak baino (% 13).
- 2008tik harremanek berdin jarraitzen dutela uste dutenen kopurua 9,5 puntu jaitsi da (% 66,5 2008an eta % 62,6 2009an) eta okerrera egin dutela adierazi dutenena 10 puntu baino gehiago igo da (% 14,6 2008an eta % 19,3 2009an).

### 3. Kultur-aniztasunaren kudeaketa


## Kultura-aniztasunari buruzko zenbait adierazpen esango dizkizut. Esan diezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



### Hasiera batean, euskal herritarrek jarrera anbibalentea dute kultur-aniztasunaren inguruan:

- Beste talde etnikoetako etorkin atzerritarrek Euskadiko bizitza kulturala aberasten duten galdetzen zaienean ez daude ez alde ez kontra: % 45ak baieztapen horrekin bat egin du eta % 46 horren kontra agertzen da.
- % 53,9k uste du etorkinen erlijio-praktikek ez dutela arriskuan jartzen gure bizi-estiloa, hain zuzen, 2007ko datuen parekoa eta 2009an baino 11 puntu gutxiago.
- Euskadiko herritarren % 57,8k ez du ondo ikusten atzerritarrek euren kultura eta ohiturak baztertu behar izatea guztiz onartuak izateko; 2009ko datuen parekoa (% 56,4).

## Euskadin bizikidetzeta hobetzeko zenbait aukera emango dizkizut. Esan iezadazu horietako bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra




## Edozein kasutan, hemengo ohiturak eta tradizioak dira osagai bateragarrietarako jarraitu beharreko eredu, baina zenbait kasutan 2009an baino modu apalagoan. Horrela, Euskadin elkarbizitza hobea lortzeko,

- % 57k uste du bertakoak ez direla ahalegindu behar pertsona etorkinen ohitura eta tradizio batzuk ezagutzen eta horietara egokitzen; aurreko urteko portzentaje berdintsua.
- % 48,6k dio erabateko onarpenerako beharrezkoa dela bertako legediarekiko gatazkatsuak diren erlijioaren edo kulturaren alderdiei uko egitea, 2009an baino ia 17 puntu gutxiago.
- Aurreko urteetan bezala, % 88en iritziz, bertakoek ez diete uko egin behar euren ohitura eta tradizioei.
- % 82,4k uste du pertsona etorkinak bertakoen ohiturak eta tradizioak berenganatzen saiatu behar direla.

## 4. Eragin sozialak

## Esan iezadazu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra




**Euskal gizarteak jarrera anbibalentea dauka atzerriko immigrazioaren inguruko zenbait estereotipo faltsu eta aurreiritzi negatiboren aurrean. Hala ere, Europako populazioaren zahartzeak eragindako arazoak konpondu ditzakela dio (% 44,4). Era berean:**

- 2009an bezala, % 68,8k uste du gizarte-babeseko sistema gehiegi aprobeztatzen dutela. Portzentaje hau 2008an baino ia bost puntu eta 2007an baino zortzi puntu handiagoa da.
- Era berean, % 42,6k ez du uste jasotzen dutena baino gehiago ordaintzen dutenik. % 18k uste du kontrakoa.
- % 55,7k dio pertsona atzeritarren presentziak segurtasun eza eta delinkuentzia eragiten dituela, eta horrela, hiritarren segurtasunari kalte egiten diola uste dutenen kopurua % 61,4koa da, 2009an baino 10 puntu gehiago.

## 5. Zerbitzu eta eskubideak

**Orain bertakoen zenbait eskubide aipatuko ditugu. Zure ustez, Euskadin bizi diren etorkinek ere baldintza beretan izan behar lituzkete eskubide horiek?**




### Eskubideak aipatu eta gero, euskal herritarrek uste dute:

- 2009an baino gehiago, atzerriko herritar guztiak osasun-arretarako (+%3,5) eta euren seme-alaben heziketarako eskubidea (+%3,7) izatearen aldekoak dira.
- Zerbitzu-juridikoak izateko eskubidearen alde dauden iritzia 7 puntutan igo da 2009tik. Aldiz, jaitsi egin diren zerbitzu eta eskubideak hauek dira: gizarte-laguntzak (-%7), berriz elkartzea (-%1,9), bozkatzea (-%2,1) eta babes ofizialeko etxebizitzak (-%3,2).




## 6. Immigrazio politika

## Zure ustez, zer politika-mota litzateke egokian atzerritar langileen kasurako?




- Euskadiko herritarren % 8,6, aurreko urteetan baino apur bat gehiago, ados dago etorkinak sartzeari legezko inolako trabarik ez jartzearekin, eta % 6,2 baliabide guztien bidez eragoztearen aldekoa da.
- % 82,6 lan-kontratua izanez gero sartzten uztearen aldekoa da.
- Edonola ere, beste inkesta eta ikerketa askotan ikusi denaren haritik, gizartearen zati handi batek lan-kontratua berme nahikotzat hartzen oraindik, ziurtasuna ematen duelako eta susmoak saihesten dituelako.

## Esan ieza dazdu horietako adierazpen bakoitzarekin zein neurritan zauden ados edo kontra



- Euskal gizartea tinko ageri da krisialdi ekonomikoaren aurrean: gehienei ez zaie iruditzen lanik gabe geratu diren langile etorkinak hemendik bidali behar direnik (2009ko datuen antzera).
- Lege-hausteei dagokienez, ordea, euskal gizartea zorrotzagoa da: gehienek uste dute delituren bat egiten duten etorkinak kanpora bidali behar direla (2009an baino jarrera tolerantetagoa nabari da, orduan % 60,5 kanporatzearen alde zegoen).

## Zure iritziz, zer egin beharko luke Gobernuak etorkin "irregularrekin"?



- Oro har, euskal gizarteak lan-egoera eta langile atzerritarren onarpena uztartzen ditu, eta lanean diharduten pertsonen egoera erregularizatzearen aldekoa da; lanean ari direnei hemen bizitzeko baimena ematearen aldekoa, alegia.
- Lotura hori gero eta handiagoa da: 2008an % 45,8k bakarrik lotzen zuen erregularizazioa lanarekin; 2009an % 56k eta aurtun 5 puntu igo da kopuru hori (% 61).

## Ondorio nagusiak:

1. Datuek adierazten digute EAEko biztanleek jarrera anibalentea dutela atzerriko immigrazioarekiko: zenbait alderditan oso jokabide irekiak ageri dituzte, eta beste batzuetan, aldiz, jarrera itxiagoak nabarmendu dira.
2. Edonola ere, azken urtean herritarren jarrera gogortu egin dela ematen du, kritikoagoa dela eta atzerritarrekin apur bat estuagoa.
3. Kulturarteko elkarbizitza-eredurik ez da ageri. EAEko biztanleek asimilazio-eredu baten aldeko joera dute -2007, 2008 eta 2009ko barometroetan baino gehiago-, atzerriko etorkinei eskatzen baitiete ahalegin handiena egiteko, integrazioa errazteko bidean.
4. Immigrazio-politikak eta lan-egoera uztartzeko jarrerari eusten dio euskal gizarteak. Beste ikerketa batzuek joera hori adierazi dute, eta oraingoa bildutako datuak ere ildo beretik doaz. Euskal gizartearen % 82,6 lan-kontratua duten atzerriko pertsoneri sartzen uztearen alde dago.
5. Aurreko urteetan bezala, euskal gizarteak atzerriko immigrazioaren aurrean zenbait estereotipo faltsu eta aurreiritzi negatibo mantentzen ditu. Hauek neurri batean autonomoak direla ematen du benetako gertaeren aldean, eta bereziki kezagarria da immigrazioa eta hiritarren segurtasun eza lotzen dituen aurreiritzia.
6. Atzerritarren etorrerak sortzen dituen kezka eta errezelo gehienak euskal gizartearen ongizatemailari eusteko gaitasunari buruzkoak dira.

## Beste datu interesgarri batzuk:

1. Euskadiko herritarrek ez dute ikusten immigrazioa arazo gisa, ez Euskadiko arazo moduan ezta gutxiago ere arazo pertsonal legez. Hala ere, arazotzat hartzen dutenen kopurua igo da, batez ere, erantzuna iradokitzen den kasuetan.
2. Euskadiko herritarrek osasun-arreta eta hezkuntza-eskubideak atzerriko pertsona orori aitortzearen aldekoak dira (2009an baino gehiago), zerbitzu-juridikoak jasotzeko eskubideari dagokionez ere 2009an baino irekiagoa agertzen dira. Beste zerbitzu eta eskubide jakin batzuk, ordea, erregularizatutako herritarrei mugatzen diete.
3. Euskal herritarrek, aurreko urteetan bezala baina intentsitate gutxiagoz, ez dute ez euskal nortasuna ezta euskara ere mehatxatuta sentitzen atzerriko pertsona etorkinak etortzearen.
4. Euskadiko herritarren erdiek baino gehiagok (% 57 inguru) uste du, aurreko urteetan bezala, etorkin gehiegi edo nahiko daudela, baita benetako portzentajea jakin eta gero ere (% 6,4).
5. Euskal herritarrek aurreko urteetan baino onberatasun gutxiagoz epaitzen dute immigrazioaren eragingarritasun ekonomikoa, eta ondorio negatiboen ehunekoa areagotu egin da.



# ikuspegi

**Immigrazioaren Euskal Behatokia**  
Observatorio Vasco de **Inmigración**



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA  
*Immigrazio Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES  
*Dirección de Inmigración*